

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

542/2024 Foru Agindua, urriaren 22koa. Añanako, Lagrango eta Haraneko Udalen Elkarteko idazkari-kontuhartzaile kargutik kentzea María Lourdes Miranda Lafuente, berak hala eskatuta

Apirilaren 17ko 171/2024 Foru Aginduaren bidez, bitarteko funtzionario izendatu zen María Lourdes Miranda Lafuente, Añanako, Lagrango eta Haraneko Udalen Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostuan.

2024ko urriaren 16ko idazki baten bidez, funtzionario horrek udal elkarteari jakinarazi zion borondatezko baja hartzeko asmoa zuela, 2024ko urriaren 16tik aurrerako ondorioekin; Lagrango Udalak, zeina elkartearen egoitza baita, Lurralde Orekaren Zuzendaritzari jakinarazi zion, eta egun horretatik aurrera kargutik kentzeko eskatu zuen.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 56. artikulua ezartzen duenez, xedapen horren VI. kapituluaren aipatzen diren izendapenak egiteko eskumena duten organoek izendapena errebokatzeko eskumena ere badute. Artikulu bereko 2. apartatuak ezartzen du izendapen edo errebokatzeko horiek egiten dituen organoak dagokion idatzoharra egin behar duela aipatutako errege dekretuaren 23. artikuluan adierazten den erregistro integratuan.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik hirugarrenean xedatutakoari dagokionez Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hama-hirugarren xedapen iragankorrean agindutakoa betetzeko, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotako eskumenak betez, eta horien indarrez dagozkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Añanako, Lagrango eta Haraneko udalen elkarteko idazkari-kontuhartzaile kargutik kentzea María Lourdes Miranda Lafuente, berak hala eskatuta, 2024ko urriaren 16tik aurrerako ondorioekin; izan ere, bitarteko izendapenez betetzen zuen lanpostu hori, apirilaren 27ko 171/2024 Foru Aginduaren arabera.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Añanako, Lagrango eta Haraneko udalen elkarteari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, dagozkion ondorioetarako, eta foru agindua ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten den foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 22a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren jarduneko zuzendaria

JON ANDA LÁZPITA